

KONTU KORRONTE BAT IREKI DUTE EUSKADIKO KUTXAN BI MILIOI PEZETA INGURUKO ISUNEI AURRE EGITEKO

Zigortutako abokatuei babesa eskaintzeko sortu da Euskaldunontzat Justizia Ekimena

■ Justiziaren Administrazioa euskalduntzeko eskatzeagatik zigorrak jasan dituzten guztiei elkartasuna adierazi die

■ Justizia euskalduntzeko EHEk, EKBk, AESk eta UEMAk aurkeztutako oinarrien balioa berretsi du

■ Sei puntuko oinarrien balioa zabaltzen saiatuko dira taldea osatzen duten kide guztiei dagozkien arloetan

Iñaki Petxarroman / Donostia

EUSKAL HERRIKO hainbat eragilek eta pertsona ezagunek, zigortutako hainbat abokaturekin batera, Euskal dunontzat Justizia Ekimena aurkeztu zuten atzo Donostian. Ekimenaren helburuak hiru dira, Aitor Idiakez abokatu zigortuak adierazi zue-
nez: batetik, zigortuak izan diren abokatu eta euskaltzaleei elkartasuna adieraztea; bestetik, isunak jaso dituzten abokatuentzat laguntza ekonomikoa eskatzea; eta, azkenik, Justizia Administrazioan euskararen normalizazioak aurrera egin dezan eskatzea. Horretarako, Abokatu Euskaldunen Sindikatuak (AES), Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE), Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) urrian aurkeztu zituzten oinarrien balioa berretsi zuten.

Iñigo Idiakez, Jon Etxabe eta Jose Luis Ilarramendi zigortutako abokatuekin batera, Donostian izan ziren Jose Luis Alvarez Enparantzat Txillardegi, Eustakio Uranga ELAko ordezkaria, Jose Luis Rezabal LABekoa, Mertxe Aizpurua Gara egunkariko zuzendaria, Luix Barinagarremenderia AESko ordezkaria eta Jagoba Zulueta EHEkoa. Gainera, Donostiara joan ez ziren beste batzuek ere bat egin dute ekimenarekin, hala nola Martxelo Otamendi EGUNKARIAko zuzendariak, Asier Gozategi musikariak, Pako Aristi idazleak, Igor Elortza eta Jon Maia bertsolariak eta Andres Urrutia euskaltzainak.

Guztien izenean, bost puntuko idatzia irakurri zuen Mertxe Aizpurua. Haren hitzetan, euskarak ofizial izan behar luke Euskal Herri osoan. Bestalde, adierazi zuen euskara ofizial den lekuetan ere Justizia Administrazioa



GARI GARAIALDE

Euskaldunontzat Justizia Ekimena aurkezteko atzo Donostian egindako agerraldia.

langile eta funtzionarioak ez dituztela behartzen euskaraz jakitera, eta horrek ekartzen duela euskaldunen eskubideak bortxatuak izatea. Azkenik, ziurtatu zuen itzulpen sistemak ez duela bermatzen berdintasun printzipioa.

Aitor Erkizia abokatuak azpimarratu zuen ekimena ez dela dirua ateratzeko ekimen hutsa, abokatuei «babes moral» ematekoa baizik, beren jardunean ondo ari direla adierazteko.

EUSKALDUNONTZAT Justizia Ekimena osatzen duten Justizia euskalduntzeko EKB, EHE, AES eta UEMAK urrian aurkeztu oinarrien balioa berretsi zuten atzo.

Talde euskaltzaleek sei puntuko proposamena egin zuten. Lehenik, adierazi zuten euskarak ofizial eta berezko hizkuntza izan behar duela Euskal Herri osoan, eta, bestetik, Justizia Admi-

puntuz puntu

Hiru eskari gizarteari

■ Euskaldunontzat Justizia Ekimenak ondokoa adierazi dio euskal gizarteari:

Elkartasuna • Gure elkartasun eta atxikimendu osoa adierazten diegu Justizia Administrazioan euskararen normalizazioaren alde lanean ari diren euskaltzale guztiei.

Kontu korrontea • Zigortuak izaten ari diren abokatuei elkartasun ekonomikoa

eskaintzera deitzen ditugu herritarrek. Horretarako, Euskadiko Kutxan zenbaki hau ireki da: 3035 0060 4 7 060.0.09484.3.

Oinarriak • Normalizazio prozesuak ezinbestean bere garaian AESk, EKBk, EHEk eta UEMak sinatu oinarriak behar ditu oinarri. Ordezkarri politiko eta instituzionalen oinarriak bere egin eta horietan oinarritutako prozesua irekitzeko eskatzen diegu.

Justizia euskalduntzeko oinarriak berretsi dituzte

nistrazioak izan behar duela euskal herritarren eskubideak bermatuko dituen zerbitzu publikoa. Horregatik, haien hizkuntz eskubideak bermatu behar dituela aldarrikatu zuten.

Hirugarrenik, esan zuten Justizia Administrazioak bermatu egin behar duela herritarrek aukeratzen duen prozedura hizkuntza.

Halaber, AESk, UEMAk,

EHEk eta EKBk egindako proposamenak dioenez, itzulpena ez da bidea, salbuespena baizik.

Taldeek aldarrikatu zuten euskarak derrigorrezkoa izan behar duela Justizia Administrazioan lan egiten duten guztientzat. Horregatik, langileen artean euskalduntze mailakatu baina etengabe bultzatzearen alde agertu ziren.

Azkenik, lau taldeek diote behin-behineko eta berehalako neurriak hartu behar direla, gaurdanik bermatzeko euskaldunen hizkuntz eskubideak Justizia Administrazioan. Euskaltzaleen arabera, azken puntu horrek berebiziko garrantzia hartzen du eremu euskaldunetan, non herritarrek euskaraz bizitzeko eginahalak egiten ari diren.